

# Topalekua

109 zk. 2022ko otsaila

EHU/UPVko GIZARTE KONTSEILUA  
CONSEJO SOCIAL DE LA UPV/EHU

390,4 MILIOI EURO DIRU-LAGUNTZETATIK DATOZ

## Gizarte Kontseiluak UPV/EHUren 2020 ekitaldiko kontuak onetsi ditu

**Gizarte Kontseiluak, 2021. urteko azken osoko bilkuran, pasa den abenduaren 22an egin zenean, Euskal Herriko Unibertsitatearen 2020. urteko Kontabilitate Egoerak onetsi zituen. Ekitaldi hartan, hasierako aurrekontua 427,7 milioi eurokoa izan zen.**

427,7 milioi euroko zenbatekoa aldatu egin zen, aurreko ekitaldietako gaineratikoak gehitu zitzaizkiolako, 518 milioi eurora heldu arte. Horietatik, UPV/EHUK 440,5 milioi euro exekutatu zituen.

Eusko Jaurlaritzaren transferentzia eta diru-laguntza arruntak dira UPV/EHUren finantzaketa-iturri nagusia. Horien artean sartzen dira, nagusiki, Euskal Autonomia Erkidegoko 2020rako Aurrekontu Orokorretako diru-laguntza globala (275 milioi euro), baita ordainsari-osagarriak finantzatzeko 17,6 milioi euro ere.

Kapital-transferentziei dagokienez, Eusko Jaurlaritzak ematen dituenetan izandako gorakada da esanguratsuena. Izan ere, 3,3 milioi euroko hasierako aurrekontua izatetik, 23 milioi eurokoa izateraino igo da. Gorakada hori programakontratu eta ikerketarako EAEko kapitaleko diru-laguntza bati dagokio.

2020ko ekitaldian zehar ondare-emaizta ekonomikoaren kontuari egotzitako transferentzia eta diru-laguntza arruntak 390,4 milioi euro izan dira, honela xehatuta:

UPV/EHU-ren 2020ko AURREKONTUAK	Milioi euro
Honako hauek emanak:	Jasotako transferentzia arruntak
Eusko Jaurlaritza	356,4
Estatua	16,5
Europar Batasuna	7,5
Gipuzkoako Foru Aldundia	1,0
Bizkaiko Foru Aldundia	0,7
Arabako Foru Aldundia	0,2
Beste batzuk	8,1
<b>GUZTIRA</b>	<b>390,4</b>

Gizarte Kontseiluaren 2021. urteko azken osoko bilkuran, halaber, Unibertsitateak partaidetzaren gehiengoa duen erakundeetako (Euskoiker, UPV/EHUko Udako Ikastaroak eta Medikuntza eta Zientzien Historiaren Euskal Museoa) Kontabilitate Egoerak baimendu ziren akordio berean.

Ekonomia- eta finantza-informazio hori Euskal Herriko Unibertsitateak unibertsitateko gobernu-organoari aurkeztu zion, gizarteari kontuak emateko prozesuaren esparruan.

### 250 irakaslerentzako ordainsari-osagarriak

Pasa de abenduko saioan, UPV/EHUko Gizarte Kontseiluak 2021eko deialdian C1 eta C2 mailetakoko 250 irakasleri Ordainsari Osagarri Gehigarriak esleitzea erabaki zuen. Horrez gainera, 2020ko deialdiko A eta B osagarriak esleitzearan kontra aurkeztutako errekurtsuak ebatzi ziren.

### Aurrekontu-aldaketak

Saio horretan bertan, Osoko Bilkurak 10.000 eurotik gorako aurrekontuak aldatzeko lau proposamen onetsi zituen, guztira, 112.682 euroko zenbatekoarekin, bulegoko materiala, irakaskuntzarako materiala, material zientifikoa eta inbentariagarria erosteko.

Gainera, 10.000 eurotik beherako 20 proposamen baliozkotzea erabaki zuen, 74.788,26 euro guztira, zientzia-, irakaskuntza-, informatika- eta ikus-entzunezko ekipamendua erosteko. Aurrekontuko 24 aldaketen batura 187.470,26 eurokoa da guztira.

(2. orrietan jarraitzen du)

## Gizarte Kontseiluaren 2022rako aurrekontua

UPV/EHUko Gizarte Kontseiluaren osoko bilkurak Kontseiluaren beraren 2022. urteko aurrekontua ere onetsi zuen, 450.000 euroko sarrera eta gastuen egoera-orria duena.

Gizarte Kontseilua Unibertsitatean euskal gizartearen partaidetza bermatzen duen gobernu-organoa da eta unibertsitate-komunitatearen zenbait interes sozial ordezkatzen ditu.

Unibertsitatearen jardueretik lankidetzak aktiboaren ikuspegitik, bost jarduera-ardatz ditu:

- Kontseiluak gizarte-premia berrien behatokitza duen rola indartzea.
- Unibertsitatea eta enpresa elkarri hurbiltzea eta ikasle tituludunen enplegarritasuna sustatzea.
- Sari eta errekonozimenduak ematea Kontseiluaren jarduera-eremuetan.
- Beste erakunde eta eragile sozial batzuekiko aliantzen politika garatzea.
- Gardentasunean eta kontu ematean oinarritutako unibertsitate-gobernantza baterantz aurrera egiten launtzea.

## Osakidetzaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko ituna

Gizarte Kontseiluak, otsailaren 4an egindako osoko bilkuran, adostasun-txostena eman zion Osakidetzaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko Itunari, bi erakundeetako langileek Erizaintza, Medikuntza, Farmazia, Odontologia, Fisioterapia eta Giza Nutrizioa titulazioetan (gradu, gradu osteko eta etengabeko prestakuntzakoak) ematen duten unibertsitateko ikerketan eta irakaskuntzan osasun-erakundeak erabiltzeko. Itun honek 2008an onartutakoa eguneratzen du.



## Kontseiluak baimena eman du UPV/EHUk Hidrogenoaren Euskal Korridorean parte har dezan

Iazko azken saioan, Gizarte Kontseiluaren osoko bilkurak, azkenik, baimena eman zuen Euskal Herriko Unibertsitateak 'Hidrogenoaren Euskal Korridorean' parte har zezan eta Guillermo Quindós, Garapen Zientifiko-sozialerako eta Transferentziarako errektoreordea, izendatu zuen ordezkeri.

Elkarre hori lankidetzak-ekimen publiko-pribatua da, urte honen hasieran sortu zena, ekonomiaren deskarbonizazioarako trantsizioaren esparruan, hidrogenoaren ekosistema bat sortzean oinarrituta.

40 proiektu eta 80 erakunde baino gehiago dira 'Hidrogenoaren Euskal Korridoreko' zati. Une honetan, UPV/EHUren jarduera nagusia Hidrogenoaren Teknologien Unibertsitate arteko Masterrean parte hartzea da. Horretan, Pedro Luis Arias eta Inmaculada Zamorak hartzen dute esku, nagusiki, irakasle gisa.

'Hidrogenoaren Euskal Korridoreak', 2021eko otsailean aurkeztu zenak, sektore estrategikoen deskarbonizazioa bultzatu nahi du, hala nola energiaren, mugikortasunaren, industriaren eta zerbitzuen sektoreetan, zenbait proiektu garatuz.

Horretarako, elkarteko kideek 1.500 milioi eurotik gorako inbertsioa egitea dute aurreikusita 2026. urtera arte. Horrekin, zuzeneko 1.340 lanpostu sortuko dira, baita zeharkako 6.700 lanpostu ere, ekimenaren sustatzaileen arabera.

Horren guztiaren ondorioz, urtean 20.000 tona hidrogeno berriztagarri ekoiztuko dira, eta aldi horretan 1,5 milioi tona CO<sub>2</sub> gutxiago isuriko dira.

Proiektuetan, UPV/EHUz gainera, beste enpresa eta erakunde hauek ere parte hartzen dute: Petronor, Repsol, Energiaren Euskal Erakundea, Iberdrola, Bilboko Portua, Idom, Ingeteam, Sidenor, Tubacex eta Tubos Reunidos, besteak beste.

**UNIBERTSITATEEN MINISTERIOAK, CRUEK ETA ANECAK SUSTATUTAKO TXOSTENA**


EMAKUMEEK GIZONEK BAINO ORDAIN SARIRIK GABEKO BAIMEN MOTA GEHIAGO ESKATZEN DITUZTE

# Familia-ardurengatiko baimena Espainiako Unibertsitate Sistema Publikoan generoagatiko soldata-arrakala hein handienez sortzen duen faktorea da

**Espainiako Unibertsitate Sistema Publikoko generoagatiko soldata-arrakala orokorra % 10,9 da, Unibertsitate Ministerioak, CRUEk eta ANECAk berriki egindako azterlan baten arabera. Osagarriek % 16,7ko batez besteko balioa dute eta oinarriko soldatak, % 0,6koa.**

**FAMILIA-ARDURENGATIKO BAIMENEN PISUA, SEXUAREN ARABERA, HAMABOST UNIBERTSITATE PUBLIKOTAN**

Iturria: Espainiako Unibertsitate Publikoetako Generoagatiko Soldata Arrakalari buruzko txostena



- UIB Universitat de les Illes Balears
- UMA Universidad de Málaga
- UNIOVI Universidad de Oviedo
- EHU Euskal Herriko Unibertsitatea
- UAB Universidad Autónoma de Barcelona
- UCA Universidad de Cádiz
- UJI Universitat Jaume I
- ULL Universidad de La Laguna
- UPO Universidad Pablo Olavide
- UPV Universitat Politècnica de València
- UV Universitat de València
- UVIGO Universidad de Vigo
- UNICAN Universidad de Cantabria
- UVA Universidad de Valladolid
- UCM Universidad Complutense de Madrid

Baimenei dagokienez, familia-ardurei loturikoa da arrakala-sortzaile handiena eta bat dator, halaber, zaintzen pisuaren aldagai ikusezin eta ikusezinduekin. Azken kategoria horretan, soldatako osagai guztien arrakala oso handia da, batez ere osagarrien kasuan, %28,1era heltzen baita. Oinarriko soldatako arrakala % 12,7 da eta, guztizko soldatakoa, % 20,7. 'Espainiako Unibertsitate Publikoetako Generoagatiko soldata-arrakala' izeneko azterlanaren arabera, goiko grafikoan aztertutako hamabost ikastegiren artean, emakumeek soldatarik gabeko baimen mota gehiago eskatzen dituzte (% 53), eta, horregatik, soldata gizonena baino baxuagoa izaten da. Baimen mota horretan emaku-

meen pisu handiena duten unibertsitateen artean, UPO dago lehenik (% 75), ondoren Galiziako UVICO (% 68), EHU (% 67) eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa (% 58). La Lagunako Unibertsitatea da ekitatera gehien hurbiltzen dena (% 50).

**Arrakala 30 eta 39 urte bitartean heltzen da maximora**

Txostenak nabarmentzen duenez, Unibertsitate Sistema Publikora oso adin gazteetan (29 urte arte) sartzean, ez dago ia desberdintasunik soldaten artean, eta baldintzek berdintzeko joera dute. Bigarren segmentuan (30-39 urte), berriz, arrakalak bere maximora jotzen du, irakaskuntza-karreraren laneratze gehien gertatzen diren adinean. Denborak aurrera egin ahala, (40-49 urte), (50-59 urte) eta (60 urte eta gehiago) segmentuetan, arrakala erlaxatzeko eta egonkortzeko joera dago, eta %3 inguruan mantentzen da. Osagarrietan dagoen tarte da nabarmenena edozein adin-tartetan.


**Lehen amatasunaren adina**

Soldata-desberdintasunak bereziki esanguratsuak dira 30 eta 39 urte bitarteko emakumeen taldean (% 10,4). Jauzi handi hori bat dator lehen amatasunaren adinarekin, horretan, emakumeek zailtasun handiagoak izaten baitituzte beren karrera akademikoan jarraitzea, aurrera egitea eta/edo finkatzea bermatzeko beharrezkoak diren irakaskuntza- eta ikerketa-merituak metatzeko (ikus aurreko grafikoak).

Sei kapitulutan makrotik mikrorra dagoen soldata-arrakala aztertzen duen azterlan honen helburua Espainiako unibertsitate publiko guztietan genero-arrakala murrizten saiatzea da.

**EMAKUMEEEN SOLDATA-DESBERDINTASUNAK, ADIN-TALDEAREN ARABERA**

Iturria: Espainiako Unibertsitate Publikoetako Generoagatiko Soldata Arrakalari buruzko txostena






IKERTZAILEEN GAIKUNTZA DA 'BASQUE INNOVATION PERCEPTION' AZTERLANEAN HOBEKIEN BALORATZEN DEN ALDAGAIA

# Ekimen estrategikoek, digitalizazioak eta 'ETEetako' berrikuntzak izan behar dute ZTBESaren lehentasunek

**Innobasquek bi urtean behin sustatzen duen 'Basque Innovation Perception' (BIP) azterlanaren hirugarren edizioan, jotzen da COVID-19aren osasun-krisia ustekabeen sortu ondoren, pasa den urtean hasitako suspertze ekonomikoa "biziagoa izango dela 2022an" Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sistema guztian.**

## ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZAKO EUSKAL POLITIKA PUBLIKOAREN LEHENTASUNAK, 'BIP' TXOSTENAREN ARABERA



BIP bi urtean behingo azterlana da, eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sistemako (ZTBES) 250 profesionalak Euskadiko I+G+b jardueraren bilakaerari eta aurreikuspeni buruz duten pertzepzioa kontrolatzen du. Aditu horiek ikuspegi enpresarial, zientifiko eta teknologikoak, sozialak eta instituzionalak ematen dituzte, eta horrek Euskadiko berrikuntzaren egoeraren irudi osoa izatea ahalbidetzen du.

### 2022ko susperraldirako hiru gako

Etorkizunerako gakoei dagokienez, BIPek jotzen du, pandemiak eragindako krisialdiaren ondoren, Euskadin iaz abian jarri zen berreskuratze-prozesua "biziagoa izango dela 2022an". Berreskuratze horretarako, aipatutako aditu-taldeak irizten du ZTBESaren gako nagusiek honako hauek izan behar dutela: ekimen estrategikoak

sustatzea (%47,3); enpresen eta gizartearen digitalizazioa (%43,6); eta ETEen berrikuntza (%43,2). Oro har, hauek dira taldearen gehiengoak adierazitako hiru lehentasunak, ezagutzaren transferentziari eta talentuaren kudeaketari lehentasuna ematen dion iker-tzaile-taldeak izan ezik (ikus goiko grafikoa).

BIPen arabera, aldagai guztiek dute gainditzeko moduko nota. Ikertzaileen gaikuntza da balorazio onena jasotzen duena, 7,98ko notarekin 10ekiko (ikus beheko grafikoa). Balorazio txarrena jasotzen duen aldagaia (5,59ko notarekin) I+G+b ekimenetarako finantzaketa pribatua egoteari dagokio.

### Berrikuntza lehenestea

Adituen taldeko kideen gehiengo batek (%42,4) jotzen du, egungo egoera dela-eta, berrikuntza hein handiagoa izango dela lehentasunezkoa enpresentzat eta ezinbesteko baldintza izango dela lehiakorrak izaten jarraituko badute. BIP osatzen duten talde guztiek dute pertzepzio bera. Gainera, %51,9ak jotzen du, Euskadin garatzen ari den I+G+b jarduerari esker, euskal osasun-sistema indartuta aterako dela COVID-19ak eragindako egungo krisialditik irtendakoan.

### Osasun-krisialdiaren inflexio-puntua

BIParen hirugarren edizio honetan bi inkesta egin dira: bat, osasun-krisia sortu aurretik eta beste bat, ondoren. Txosten honetan, pandemiaren aurreko ZTBESaren egitura-egoerari buruzko lehen inkestaren emaitzak eta pandemia hasi ondorengo etorkizuneko aurreikuspeni buruzko bigarren inkestaren erantzunak aurkezten dira. Aditu-taldeak jarrera orekatua du, I+G+b jarduera eta dagokien erakundeen tipologia kontuan hartuta.

## EGOERA ONENA AGERTZEN DUTEN BOST ALDAGAIK, 1 ETA 10 PUNTU BITARTEAN BALORATUTA. 2020. URTEA

